

BESTELAKO XEDAPENAK

JUSTIZIA ETA GIZA ESKUBIDEEN SAILA

5665

EBAZPENA, 2024ko azaroaren 22koa, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren zuzendariarena, memoria demokratikoa berreskuratzeko liburuak argitaratzeko eta dokumentalak egiteko dirulaguntzen 2024ko deialdia ebazten duena.

Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuko zuzendariaren 2024ko abuztuaren 1eko Ebazpenaren bidez (abuztuaren 12ko EHAA, 156. zk.), 2024. urterako dirulaguntzen deialdia egin da memoria demokratikoa berreskuratzeari buruzko liburuak argitaratzeko eta dokumentalak egiteko.

Ebazpen horren 13. artikuluan izendatutako epaimahai kalifikatzaileak dirulaguntzak emateko egindako proposamena aztertuta, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– I. eranskinean zerrendatutako erakundeek aurkeztutako eskabideak ez onartzea, eranskinean bertan ematen diren arrazoiengatik.

Bigarrena.– II. eranskinean zerrendatzen diren erakundeei esleitzea laguntzak, eranskin horretan zehazten diren zenbatekoen arabera. Laguntza horiek minimis izaera dute, eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua minimis laguntzei aplikatzeari buruzko Batzordearen 2023ko abenduaren 13ko 2023/2831 (EE) Erregelamenduari lotuta daude (2023-12-15eko EBAO, L 2831. zk.).

Hirugarrena.– Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beronen aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuko lehendakariari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera, hala ezarrita baitago Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112. artikuluan eta hurrengoetan.

Bilbao, 2024ko azaroaren 22a.

Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren zuzendaria,
ALBERTO ALONSO MARTIN.

2024ko abenduaren 11, asteazkena

I. ERANSKINA

BAZTERTUTAKO ESKABIDEAK

Kodea	Izena	Proiektua	Baztertzeko arrazoia
005	Maria José Mielgo Busturia	Liburua: «Amigas sin estatuas»	Ez du deialdiaren 1. artikuluan ezarritakoa betetzen, ez da liburu argitaragabea.

2024ko abenduaren 11, asteazkena

II. ERANSKINA

ERAKUNDE ESLEIPENDUNAK

Kodea	Izena	Proiektua	Dirulaguntza
001	Fundación Cultural Privada Indalecio Prieto	Liburua: «Discursos necrológicos. 50 retratos del siglo XX»	3.839,04
002	Amaia Lerchundi Ortiz	Liburua: «Paseos por las historias de Bilbao en compañía del Athletic (con una República que no duró)»	3.400,00
004	Asociación para la Defensa de la Dignidad Humana	Liburua: «»En memoria de las Víctimas del Terrorismo de Extrema Derecha»	2.250,00
006	Fundación Ramón Rubial	Liburua: «Socialistas en Erandio. 125 años (1896-2021)»	2.850,00
007	Intxorta 1937 Kultur Elkartea	Liburua: «2000 del Winnipeg. Diario de a bordo (2.ª Edición)»	2.300,00
008	Kultur Soleil S. Coop	Liburua: «Euxkadi en ruinas»	4.350,00
009	Aiert Zubigarai Kapelastegi	Liburua: «Elgeta 1937 Emakumeen Memoria»	2.374,60
Guztira			21.363,64